

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Kudeaketako Zuzendaritzaren ebazpena, 2020ko uztailaren 30ekoa, Aisiola Ikas Kultur Elkartearen Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskola gisa ofizialki onartzen duena

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren azaroaren 2ko 419/1994 Dekretua ikusirik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolen aitortpen ofiziala arautzen duena

Arabako Biltzar Nagusien ekainaren 20ko 22/1988 Foru Araua ikusirik, Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoa eratzen duena, eta Arabako Foru Aldundiak gazteria arloan dituen eskumenak hari esleitzen zaizkiolarik

2020ko urtarrilaren 16an Erakunde honetan Aisiola Ikas Kultur Elkarteak eskolaren aitortpen ofiziala lortzeko eskabidea egin zuela ikusirik, aipatutako Dekretuaren 3. artikuluan eskatutako agiriekin batera,

Aurrekoa egiaztatu ondoren, Aisiola Ikas Kultur Elkartearen eskolak 419/1994 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituela kontuan hartuz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Ondoren adierazten den eskolari, Arabako Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolen Erregistroan erregistratua geratu dena, aitortpen ofiziala ematea:

- Izena: Aisiola Ikas Kultur Elkartearen
- IFZ: G48552053
- Helbidea: Izer, 8, 48340 Amorebieta-Etxano
- Erregistro zenbakia: 06/1995/01

Bigarrena. Aisiola Ikas Kultur Elkarteari aitormen horrek berekin dakartzan betebeharrak betetzeko beharra adieraztea, 419/1994 Dekretuaren 7. artikulua edukiarekin bat etorritik.

Hirugarrena. Ebazpen hau Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari bidaltzea.

Administrazio bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 14a

Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzailea
PABLO DE ORAÁ OLEAGA